

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Foru Gobernuak uztailaren hasieran ordainduko du abenduko aparteko ordainsari guztiaren aurrerapena

16.674 langilek jasoko dute eta 34,4 milioi euroko kostua du


Miércoles, 24 de junio de 2015

Nafarroako Gobernuak asteazken honetako bilkuran akordio bat onartu du eta, haren bidez, uztaileko lehen egunetara aurreratuko da 2015 eko abenduko aparteko ordainsari guztia. Neurri horren barnean sartzen dira 16.674 langile, eta 34.432.951 euroko kostua du.

Zehazki, ordainsari hori orain arte aurreratu zaien langile finko nahiz aldi baterako langileek jasoko dute, eta hurrengo sei hilabeteetan zerbitzu-harreman bat aurreikusita dutenek, akordioak jasotzen duen moduan. Aurreratze horrek ez die eragingo aurten sartu diren pertsoneri (finkoak nahiz aldi baterakoak), eta aparteko diru-sarrerak bere garaian kobratuko dituzte.

Neurri hori hartzen den seigarren aldia da, 2012ko abenduko aparteko ordainsaria kendu zenetik. Gogora ekarri behar da, 2013 eta 2014 urteetako biak aurreratu direla (abendutik uztailekoa eta ekainetik urtarrilerakoa), 2012ko abenduko aparteko ordainsaria kendu izanaren ondorioz; kentze hori Espainiako Gobernuak onartu zuen, uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuaren bidez, eta autonomia erkidegoek nahitaez bete beharreko oinarritzko araudia da.

Gogoratuko denez, iragan martxoan [ordaindu zuen Nafarroako Gobernuak](#) 2012. urteko abenduko aparteko ordainsariaren laurdena.



Gobernuak uztaileara aurreratuko du abenduko aparteko ordainsari guztia.